- Del mismo modo, tras la aprobación de la Ley 12/2002, de 23 de mayo, de renovación del Concierto Económico y de la Ley 13/2002, de la misma fecha, que aprueba la metodología de determinación del Cupo para el quinquenio 2002-2006, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 6/2002, de 4 de octubre, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aplicable al período 2002-2006.

- 2005eko ekitaldian Ertzaintzako promozio berriak sartu ziren, eta horrek, 2002-2006 aldirako Kupoaren Bosturtekorako Legearen bosgarren xedapen gehigarria aplikatuz, Estatuari ordaindu beharreko kupu likidoan gutxiagotzea ekarri du, eta, horrenbestez, gastu txikiagoa foru-aldundiei. Kasu honetan, eskumena Eusko Jaurlaritzak duenez, foru-aldundiek ekarpen berezia egiten dute Estatuari ordaindu beharreko kupoa egindako gutxiagotzearen kopuru berekoa.

- En el ejercicio 2005 la incorporación de nuevas promociones de la Ertzaintza ha supuesto, en aplicación de la Disposición Adicional Quinta de la Ley Quinquenal de Cupo para 2002-2006, una minoración en el Cupo líquido a pagar al Estado y, por tanto, un menor gasto para las Diputaciones Forales. En este caso, dado que la competencia es del Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales satisfacen una aportación específica por cuantía igual a la minoración practicada en el Cupo líquido a pagar al Estado.

- 2007ko martxoaren 23an, Eusko Legebiltzarrak 2/2007 Legea onartu zuen, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa. Lege horretan, aintzat hartu beharreko aurreikuspenak ere hartu dira kontuan, aldi horretan kupoa kalkulatzeko metodologia dela-eta, Estatuako Administrazioarekin sinatutako akordio berrietatik etor daitezkeen egoera berriak ere jasota egon daitezzen.

- El 23 de marzo de 2007, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 2/2007, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aplicable al período 2007-2011 donde se introducen las previsiones necesarias para recoger los aspectos que se derivan de los nuevos acuerdos con la Administración del Estado en relación con la metodología de cálculo del Cupo para dicho periodo.




- Azkenik, urtarrilaren 9ko 3/2009 Errege Dekretuaren bidez, ikerketa eta garapen zientifiko eta teknikoaren eta berrikuntzaren arloko zenbait eskumen eskualdatu ziren EAera, 2009ko

- Por último, por el Real Decreto 3/2009 de 9 de enero se traspasaron a la CAPV competencias en materia de investigación y desarrollo científico y técnico e innovación, con efectividad del

urtarrilaren 1etik eragina izan zutela.

1 de enero de 2009.

**LURRALDE HISTORIKO BAKOITZAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ERAKUNDE ERKIDEEI 2000-2009 ALDIAN EGINDAKO EKARPENEN
KOEFIGIENTEAK**
COEFICIENTES DE APORTACIÓN DE CADA TERRITORIO HISTÓRICO A LAS
INSTITUCIONES COMUNES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS
VASCO PERÍODO 2000-2009



GRAFIKOA / GRÁFICO III.3

3.a.2. Euskadiko beste erakunde batzuen beste transferentzia batzuk

Atal honetan, 2009ko aurrekontu arruntean sortutako diru-sarrerak jasotzen dira, foru-aldundietatik eta autonomia-erkidegoko askotariko udal- eta lurralde-erakundeetatik datozen transferentzien ondorio diren diru-sarrerak, alegia. Sarrerok, 15.486 mila eurokoak izan ziren. Hona hemen diru-sarrera horien osaera:

- **Proiektu Estrategikoen Funtsa (PEF).** Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren 2000ko otsailaren 14ko akordioaren bidez sortu zen, 2002-2006 aldian zehar izaera estrategikoko jarduketa ekonomiko guztiak finantzatzeko, berriro Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak, 2007ko urtarrilaren 18ko biltzarrean, globalizazioaren testuinguru lehiakor berriak mahaigaineratzen dituen eragozpen eta horren deslokalizazio mehatxuen aurrean, PEF honen jarraipena onartu zuen, guztira 48.000 mila eurokoa, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien artean finantzatuta. Hori dela eta, 2009an zehar, foru-aldundiek 6.000 mila euro transferitu zituzten kontzeptu horrengatik, sei zati berdinetan eta Ekarpenen ordainketa epe berberetan.
- **Berrikuntza Funtsa (BF).** Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2007ko urtarrilaren 18an hartutako erabaki bidez sortu zen, 2008-2012 aldian arlo honetako jarduerak eta proiektuak batera finantzatzeko. Zuzkidura, guztira, 2008-2012 aldirako, 200.000 mila eurokoa izan da. Kopuru hori batera finantzatuko dute Eusko Jaurlaritzak (% 85) eta foru-aldundiek (% 15), 40.000 m€-ko bost urterokotan. Ondorioz, 2009an, kontzeptu hori dela-eta, foru-aldundiek 6.000 mila euro transferitu zizkieten Eusko Jaurlaritzari.
- **Beste diru-sarrera batzuk.** Azkenik, 2009ko ekitaldian, diru-sarrera gisa zenbatu ziren honako kontzeptu hauei dagozkien 3.486 mila euro:

3.a.2. Otras transferencias de Instituciones del País Vasco

En este apartado se recogen los ingresos devengados en el presupuesto ordinario de 2009, como consecuencia de transferencias procedentes de las Diputaciones Forales y de diversos Entes Municipales y Territoriales de la Comunidad Autónoma, que ascendieron a 15.486 miles de euros y cuya composición es la siguiente:

- **Fondo de Proyectos Estratégicos (FPE).** Creado por acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, de fecha 14 de febrero de 2000, a fin de que durante el período 2002-2006 se cofinancien todas las actuaciones económicas de carácter estratégico, de nuevo el CVFP, en sesión del 18 de enero de 2007, ante las dificultades que plantea el nuevo contexto competitivo de la globalización y sus amenazas de deslocalización, aprobó la continuidad de este FPE, para el período 2008-2010, por un importe total de 48.000 miles de euros, cofinanciado por el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales. En consecuencia, a lo largo de 2009 las Diputaciones Forales transfirieron al Gobierno Vasco por este concepto 6.000 miles de euros, en seis partes iguales y en los mismos plazos de pago que las Aportaciones.
- **Fondo de Innovación (FI).** Creado por acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, de fecha 18 de enero de 2007, a fin de que durante el período 2008-2012 se cofinancien actividades y proyectos en este ámbito. La dotación total es de 200.000 miles de euros para el periodo 2008-2012. Este importe será cofinanciado por el Gobierno Vasco (85%) y las Diputaciones Forales (15%) en cinco anualidades de 40.000 m€ cada una. En consecuencia, en 2009, las Diputaciones Forales transfirieron al Gobierno Vasco por este concepto 6.000 miles de euros.
- **Otros ingresos.** Finalmente, en el ejercicio de 2009 se contabilizaron como ingresos 3.486 miles de euros correspondientes a los conceptos siguientes:

- Hitzarmena Arabako Foru Aldundiarekin, Gasteizko tranbiarako: 1.733 mila euro.
- Hitzarmena Gasteizko Udalarekin tranbiarako: 1.733 mila euro.
- Hitzarmena Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, osasun publikoan ikerkuntzarako: 17 mila euro.
- Durangoko Udalaren 3 m€-ko sarrera, Berritzeguneko 2009ko funtzionamendu-gastuengatik.
- Convenio con la Diputación Foral de Álava para el Tranvía de Vitoria: 1.733 miles de euros.
- Convenio con el Ayuntamiento de Vitoria para el Tranvía: 1.733 miles de euros.
- Convenio con la Diputación Foral de Gipuzkoa para investigación en salud pública: 17 miles de euros.
- Ingreso de 3 m€ por parte del Ayuntamiento de Durango por gastos de funcionamiento en el Berritzegune de 2009.

3.a.3. Estatuko administrazioaren transferentziak

Atal honetan sartzen dira Estatuko administrazioetik jasotako transferentzia ez-periodikoak, ingurumeneko, estatistikako, hezkuntzako eta beste zenbait alorretako jarduerak finantzatzeko hitzarmenen eta akordioen ondoriozkoak. 2009an, 45.605 mila euro izan ziren. Hona hemen kontzeptuak eta kopuruak:

3.a.3. Transferencias de la Administración del Estado

En este apartado se incluyen las transferencias no periódicas recibidas de la Administración del Estado por convenios y acuerdos de financiación para actuaciones conjuntas en materia de medio ambiente, estadística, educación, etc. Se contabilizaron en 2009 un total de 45.605 miles de euros, por los conceptos y cantidades siguientes:

Hezkuntza Ministerioa / Ministerio de Educación, Política Social y Deporte	1.307
Masterrean edo titulu propioan matrikulatzeko laguntzak	
Ayudas para matriculación en master o título propio	851
Erretiratuentzako kalte-ordainden hitzarmena	456
Convenio indemnizaciones para jubilación	
Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa / Ministerio de Ciencia e Innovación	9.512
Ikerkuntza-jarduera areagotzeko hitzarmena	1.895
Convenio para la intensificación de la actividad investigadora	
EUROINGENIO Funtza	7.617
Fondo EUROINGENIO	
Kultura Ministerioa / Ministerio de Cultura	59
Ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa	42
Cáatalogo colectivo patrimonio bibliográfico	
Kirolarien joan-etorrietarako dirulaguntzak	17
Subvenciones para desplazamientos de deportistas	
Ingurumen eta Landa eta Itsas Inguruneke Ministerioa	582
Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino	
Nekazaritza agenda estatistikoa / Agenda estadística agraria	150
FEGA transferentziak / Transferencias FEGA	424
Landare-barietateak/Variedades vegetales	8
Justizia Ministerioa / Ministerio de Justicia	82
Hitzarmena, Dokumentazio Judizialeko Zentroa	82
Convenio Centro Documentación Judicial	
Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia / Consejo General del Poder Judicial	55
Euskararen erabilaren normalizazioa	7
Normalización del uso del euskera	
Epaile eta magistratuen prestakuntza	48
Formación jueces y magistrados	
Osasun eta Kontsumo Ministerioa / Ministerio de Sanidad y Consumo	1.858
Sendagaien erabilera arrazionalerako prestakuntzako programa	1.266
Programa de formación para el uso racional del medicamento	

Dirulaguntza, Kontsumoko Arbitraje Batzordeak	25
Subvención Juntas Arbitrales de Consumo	
Osasun-sistemaren kalitatea hobetzea	567
Mejora de la calidad del sistema sanitario	
INEM	21.026
INEM	
Etengabeko Lanbide Prestakuntzako ekimenen finantziazioa	21.026
Financiación de iniciativas de Formación Profesional Continua	
Sustapen Ministerioa / Ministerio de Fomento	5.703
Aire-ortofotografiako plan nazionala	131
Plan nacional de ortofotografía aérea	
Hitzarmena, Espainiako Lurzorua Okupazioaren gaineko Informazio Sistema (SIOSE)	6
Convenio Sistema de Información sobre Ocupación del Suelo en España (SIOSE)	
Trenbide-sare berria. Euskal Y-a	5.566
Nueva Red Ferroviaria Y vasca	
Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua	738
Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales	
Industria zinematografikoa hizkuntza koofizialean sustatzeko hitzarmena	90
Convenio fomento industria cinematográfica en lenguas cooficiales	
Zinemagintza eta ikus-entzunezko industria sustatzea	648
Fomento industria cinematográfica y audiovisual	
Lan eta Immigrazio Ministerioa	2.195
Ministerio de Trabajo e Inmigración	
Etorkinak hartu eta gizarteratzeko hitzarmena	2.195
Convenio acogida e integración de inmigrantes	
Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa / Ministerio de Industria, Comercio y Turismo	2.488
LTDerako trantsiziorako plan nazional	2.488
Plan Nacional transición TDT	
GUZTIRA / TOTAL	45.605

3.a.4. Europar Batasunetik datozen funtsak

Erkidegoko funtsetatik datozen diru-laguntzak Europar Batasunak hartutako aurrekontu-konpromisoei jarraituz ematen dira, eta kasu bakoitzeko erregelamenduari erreparatuz, bi modutan ordain daitezke: aurrerakin moduan, edo behin betiko ordainketa eginez.

Finantza arloan esku-hartzeko zenbait modu daude, funtzionatzeko modu asko, eta denbora igarotzen da proiektuak onartzen direnetik laguntzak ematen diren arte eta behin betiko jasotzen diren arte. Horregatik, egokia dirudi, diru-sarrera horiek kontabilizatzeko, prozedura uniformeaz ezartzea, zuhurtasun-printzipioan oinarrituta.

Horren ondorioz, 2000ko ekitalditik, kaxa-irizpidea erabili da Europar Batasunetik datozen laguntzak kontabilizatzeko. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian kobratzen direnean aitortuko dira Europako funtsetatik jasotzen diren diru-sarrerak.

3.a.4. Fondos procedentes de la Unión Europea

Las subvenciones procedentes de fondos comunitarios se materializan conforme a los compromisos presupuestarios contraídos por la Unión Europea, pudiendo adoptar la forma de anticipos o pagos definitivos de acuerdo con la reglamentación establecida en cada caso.

Las diferentes formas de intervención financiera, la diversidad en su funcionamiento, así como el diferimiento en el tiempo desde la aprobación de los proyectos hasta la concesión de ayudas y el cobro definitivo de las mismas, aconsejaban establecer un procedimiento uniforme para la contabilización de estos ingresos basado en el principio de prudencia.

En consecuencia, desde el ejercicio 2000, en la contabilización de las ayudas provenientes de la Unión Europea se ha seguido el criterio de caja, es decir, los ingresos derivados de subvenciones de fondos europeos se reconocerán cuando se produzca el cobro efectivo de las mismas en la Tesorería General de la Comunidad Autónoma.

a. Eskualde Garapeneko Europako Funtza. EGEF

1988. urtetik, EGEFek baterako finantzazioa eman die Euskadiko proiektuei. Hona hemen horien eskema:

Banakako proiektuak

1989. urteko erreformara arte, autonomia-erkidegoko eskumenekoak ziren Lurralde arteko Konpentsazio Funtseko banakako proiektuak aurkeztuz parte hartu zuten autonomia-erkidegoek EGEFen. Gehienez ere, % 30eko ekarpena egin zezakeen EGEFek.

Erkidegoko programak

Banakako proiektuetan jasotako laguntzak osatzeko —horrelakorik jaso bazuten—, autonomia-erkidegoek Europar Batasuneko lau programetan parte hartu ahal izan zuten: STAR eta VALOREN, 1986an onartutako programetan; eta RESIDER eta RENAVAL, 1988an onartutako programetan.

- STAR. Egoera txarrean zeuden eremuen eskualde-garapena zuen helburu, telekomunikazio-zerbitzu aurreratuak eta informazioaren teknologiak eskurago izan zitzaten lortuz.
- VALOREN. Egoera txarrean zeuden eremuen eskualde-garapena lortu nahi zen energiaren tokiko hornidura-baldintzak hobetuz. Horretarako, energia-baliabide potentzial endogenoez baliatuko ziren.
- RESIDER. Siderurgia nagusi zen eremuetan birmoldaketa sustatzeko erkidego-programa da. Euskadin, hiru lurralde historikoetako udalerriak daude horrelako egoeran. Programaren itzalean, ekoizpen-jarduerak sortu eta garatzea helburu zuten esku-hartzeak egin dira, bai eta ingurumena babestu eta hobetzea helburu dutenak ere.
- RENAVAL. Ontzigintza nagusi den eremuetan birmoldaketa laguntzeko erkidegoko programa. Bizkaian ezarri ahal izan zen, eta ekoizpen-jarduerak garatzea helburu zuten esku-hartzeak, eta ingurumena babestu eta hobetzea

a. Fondo Europeo de Desarrollo Regional. FEDER

El FEDER ha cofinanciado proyectos en el País Vasco desde 1988 de acuerdo con el siguiente esquema:

Proyectos Individuales

Hasta la reforma de 1989, la participación de la Comunidades Autónomas en el FEDER se materializó a través de la presentación de proyectos individuales del Fondo de Compensación Interterritorial, competencia del Gobierno Autonómico que significara en conjunto una aportación del FEDER máxima del 30%.

Programas Comunitarios

Complementando, en su caso, las asignaciones provenientes de Proyectos Individuales, las Comunidades Autónomas pudieron participar en los cuatro programas comunitarios: STAR y VALOREN desarrollados en 1986, RESIDER y RENAVAL en 1988.

- STAR. Su objetivo fue el desarrollo regional de zonas desfavorecidas mediante un mejor acceso a los servicios avanzados de telecomunicaciones y a las tecnologías de la información.
- VALOREN. Orientado hacia el desarrollo de determinadas regiones desfavorecidas mediante la mejora de las condiciones de abastecimiento local de la energía, a través del aprovechamiento de los recursos potenciales endógenos.
- RESIDER. Programa comunitario en favor de la reconversión de zonas siderúrgicas, que en el caso del País Vasco comprende municipios de los tres Territorios Históricos. A su amparo se han realizado actuaciones dirigidas a la creación y al desarrollo de actividades productivas, así como a la protección y mejora del medio ambiente.
- RENAVAL. Programa comunitario concebido para favorecer la reconversión de zonas de construcción naval. Aplicable a Bizkaia, consta de actuaciones para desarrollar actividades productivas, así como para la protección y mejora del

helburu dutenak egiteko ekimenak ditu bere baitan.

Erkidegoaren ekimenak

Erkidegoko lehengo programen antzeko programak dira, planteamendu estrategikoa eta antolamendu funtzionala Europako Batzordeak berak egin baitu: berak zehaztu ditu lortu nahi diren helburuak (mugak desagertzeak eragindako arazoak konpontzea, armagabetzeak eragindakoak konpontzea eta abar) eta diruz lagundu daitezkeen proiektuak. Euskadik, 1989. eta 1993. urteen bitartean bi ekimenetan hartu zuen parte.

- STRIDE. Industria-gainbeheran dauden eskualdeei laguntzeko ekimena. Horretarako, berrikuntza eta I+Dko jarduerak sustatuko dira. Euskadin, Teknologia Estrategiako Planaren 1. fasea sendotzeko erabili zen.
- INTERREG. Mugak desagertzeak ondorio txarrak izan dituen eremuetan jarduten du. Gipuzkoako Lurralde Historikoak muga-eskualdeetarako programa batean hartzen du parte, ekialdeko eta mendebaldeko Pirinioetako bi aldeetako eskualdeetarako programa batean, hain zuzen.

Programa operatiboak

EGEFen baitan, 1989an egitura-funtsen erreforma egin zenetik, ez da urtez urteko banakako proiekturik onartzen; aitzitik, estatu kideek urte anitzeko planetan adierazi behar dituzte beren beharrak. Irizpide horri jarraiki, 1989-1999 aldian, lau programa operatibo onartu ziren Euskadira, haietako bakoitza hiru urteko eperako. Gaur egun EAEko Proiektu Operatiboa (2007-2013) garatzen ari dira.

Programazioko Agiri Bakarra (DOCUP)

Gaur egun, 2000-2006 aldiko Programazioko Agiri Bakarra gauzatze-fasean dago. 2003ko apirilean onartu zuen Europako Batzordeak, eta bertan jasotzen dira Euskadiko 2. helburuko eremuetan erkidegoak egingo dituen egiturako esku-hartzeak.

medio ambiente.

Iniciativas Comunitarias

Su perfil programático es similar al de los antiguos programas comunitarios, ya que están ideados por la propia Comisión en su planteamiento estratégico y en su configuración funcional: objetivos previstos (superación de los problemas derivados de la desaparición de las fronteras, del desarme armamentístico, etc.) y tipología de proyectos subvencionables. El País Vasco participó en dos de las iniciativas existentes entre 1989 y 1993.

- STRIDE. Iniciativa destinada al apoyo de las zonas en declive industrial, estimulando la innovación y las actividades en I+D. En el País Vasco se materializa en el desarrollo y consolidación de la 1ª fase del Plan de Estrategia Tecnológica (PET).
- INTERREG. Actúa sobre áreas donde la desaparición de las fronteras tiene un impacto negativo. El Territorio Histórico de Gipuzkoa participa en un programa para las regiones fronterizas, regiones de ambos lados de los Pirineos, Orientales y Occidentales.

Programas Operativos

En cuanto al FEDER se refiere, a partir de la reforma de los Fondos Estructurales de 1989 no se aprueban proyectos individuales para cada año, sino que los Estados miembros deben expresar sus necesidades en planes plurianuales. Así, en el período 1989-1999 se aprobaron cuatro programas operativos para el País Vasco, cada uno de ellos para un período de tres años. Actualmente se está desarrollando el Programa Operativo del País Vasco 2007-2013. (P.O.P.V. 07-13)

Documento Único de Programación (DOCUP)

Actualmente está en fase de ejecución el Documento Único de Programación del País Vasco 2000-2006, que se aprobó por la Comisión Europea en abril de 2003, y en el que se recogen las intervenciones estructurales comunitarias en las zonas del

Objetivo nº 2 del País Vasco.

2009ko ekitaldian zehar 3.323 mila euroko eskubideak aitortu dira, honela banatuta:

Durante el ejercicio 2009 se han reconocido derechos por valor de 3.323 miles de euros, distribuidos del siguiente modo:

INTERREG III C: / INTERREG III C: 137

EAEko PO (07-13) / P.O.P.V. 07 - 13 3.186

b. Europako Gizarte Funtza. EGF

Europako Gizarte Funtza (EGF), lehen ere adierazi bezala, lan-merkatuan eragiteko finantza-tresna da. EGFtik etorri eta 2009an aitortutako diru-sarrerak 7.041 mila eurokoak dira, honela banatuta:

b. Fondo Social Europeo. FSE

El Fondo Social Europeo, FSE, como ya se ha indicado, es un instrumento financiero para actuar en el mercado de trabajo. Los ingresos reconocidos en 2009 y provenientes del FSE alcanzaron los 7.041 miles de euros, distribuidos del siguiente modo:

Programa Eragilea, 3. helburua / P.O. Objetivo 3-2000ES053PO306: 6.313

Programa Eragilea / P.O. N. 2007ES052PO010: 728

c. NBBEF-Orientazioa

Europar Batasuneko nekazaritza-sektorean egitura-aldaketak laguntzeko ekintza erkideak finantzatzea du helburu. Horretarako, nekazaritza-egiturak egokitu eta landa-eremuak garatu daitezten sustatzen du.

2009ko ekitaldian 900 mila euroko diru-sarrerak aitortu dira, 2000-2006 Leader landa-garapeneko programetakoak.

c. FEOGA-Orientación

Su objetivo es la financiación de las acciones comunes tendentes a favorecer modificaciones estructurales en el sector agrario comunitario, favoreciendo la adaptación de las estructuras agrarias y el desarrollo de las zonas rurales.

Durante el ejercicio 2009, se han reconocido ingresos por un importe de 900 miles de euros, relativos a los programas de Desarrollo Rural Leader 2000-2006.

d. LGENF

Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza da. 2007ko urtarrilean NBBEF-Bermea desagertzen da eta bere lekuan bi funtsa sortzen dira nekazaritzari zuzendutako Europako laguntzak kudeatzeko: LGENF eta NBEF.

2009ko ekitaldian, 2.881 mila euroko diru-sarrerak aitortu dira.

d. FEADER

Es el Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural. En enero de 2007 desaparece el fondo Feoga-Garantía y se crean en su lugar dos fondos para gestionar las ayudas europeas dirigidas a la agricultura: FEADER y FEAGA.

Durante el ejercicio 2009, se han reconocido ingresos por un importe de 2.881 miles de euros.

e. NBEF

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera Nekazaritza Bermatzeko Europa Funtz berri hau indarrean sartzen da. 2009rako laguntzen aurreikuspena 53.421 mila eurokoa zen, 50.739 mila euro diru-sarrerak bezala kontabilizatuta izanda.

e. FEAGA

A partir del 1 de enero de 2007 entra en vigor este nuevo Fondo Europeo Agrícola de Garantía. La previsión de ayudas para 2009 era de 53.421 miles de euros, habiéndose contabilizado ingresos por 50.739 miles de euros.

f. Kohesio Funtsa

Kohesio Funtsa Europar Batasuna eratzeko Itunaren 130D artikulua ezarritakoari jarraiki sortu zen. Artikulu horretan xedatzen da, 1993ko abenduaren 31 baino lehen, funts bat sortu behar dela, Europako Erkidegoak bere ekonomia- eta gizarte-kohesioa sendotzeko ekintzaren barnean, finantza-laguntza emateko ingurumenaren 5. ekimen programaren baitako helburuak lortzen laguntzeko proiektuei. Laguntzak ingurumenaren sektoreko proiektuei emango zaizkie, bai eta garraio-azpiegituren Europan batetik besterako sareak sortzekoei ere.

Hona hemen funtsa zergatik sortu den: ekonomia atzeratuenak dituzten herrialdeek ahalegin handiak egin behar dituzte Ekonomia eta Moneta Batasunean sartu ahal izateko elkarganatze-irizpideak betetzeko; eta, horretarako, defizit publikoa murrizteko herrestura-politikak ezarri behar dituztenez, lortu nahi da funtsak lagundutako azpiegiturek ez jasatea horrelako herresturarik.

Egitura-funtsek programei ematen zien laguntza, eta Kohesio Funtsek, berriz, proiektu jakinei ematen die banan-banan. Gainera, laguntza handiagoa izaten da, proiektuaren guztizko kostuaren % 80-85ekoa ere izan daiteke eta. Ez ohiko kasuetan, prestakuntzako azterketen eta aholkularitza teknikoaren % 100 ere finantza daiteke. Europako Batzordeak Europako Parlamentuari hitz eman dio orekari eutsiko diola eta laguntzen erdia ingurumen-alorreko proiektuei emango diola eta beste erdia garraioaren alorrekoiei.

1993 eta 1994ko ekitaldietan administrazio zentrala izan zen funts horren onuradun bakarra, eta urtean, gutxi gorabehera, 175.000 milioi pezeta jaso zituen batez beste. 1995era arte ez zuen autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek parte hartzeko inolako biderik zabaldu.

Europako Batzordeak autonomiei dagokien tartean onartutako proiektuak kudeatzen ditu Eusko Jaurlaritzak. Proiektuak Eusko Jaurlaritzak berak gauza ditzake, edota sozietate publiko batek, foru-aldundi batek edo toki-erakunde batek, horretarako sinatutako akordioan edo hitzarmenen bidez.

f. Fondo de Cohesión

El Fondo de Cohesión surge a partir del artículo 130D del Tratado de la Unión Europea, el cual establece la creación, antes del 31 de diciembre de 1993, de un Fondo que, en el marco de la acción de la Comunidad encaminada a reforzar su cohesión económica y social, proporcione una contribución financiera a proyectos que contribuyan a la consecución de los objetivos del 5º Programa de Acción del medio ambiente en el sector de las infraestructuras medioambientales y de la realización de redes transeuropeas en materia de infraestructuras del transporte.

La existencia del Fondo se justifica en razón de los esfuerzos que estos países con economías más retrasadas deberán realizar para someterse a la disciplina marcada por los criterios de convergencia fijados para el acceso a la Unión Económica y Monetaria, al objeto de que la inversión en el tipo de infraestructuras favorecidas por el Fondo no se resienta de las políticas de austeridad dirigidas a la reducción de déficits públicos.

A diferencia de los Fondos estructurales, la asistencia es otorgada de forma individualizada a proyectos específicos, no a programas, y el nivel de ayuda es superior, alcanzando el 80-85% del coste total del proyecto. En casos excepcionales, se puede financiar el 100% del coste total de los estudios preparatorios y de las medidas de asistencia técnica. La Comisión ha adquirido ante el Parlamento Europeo el compromiso de reparto por mitades de la ayuda entre proyectos medioambientales y de transporte.

En los ejercicios 1993 y 1994, la Administración central fue la única beneficiaria de este Fondo, con aproximadamente una media anual de 175.000 millones de pesetas, no articulando vía alguna de participación de las Comunidades Autónomas ni de las Entidades Locales hasta 1995.

El Gobierno Vasco gestiona los proyectos aprobados por la Comisión Europea dentro del tramo autonómico, cuya ejecución puede correr a cargo del mismo, o bien de una Sociedad Pública, de una Diputación Foral o de una Entidad Local, en virtud de acuerdos o convenios firmados al efecto.

Horrela, Europatik jasotzen diren laguntzak, Eusko Jaurlaritzaren edo aipatutako erakunde edo organismoen aurrekontu arrunteko diru-sarrera moduan ager daitezke.

2000/2006 aldirako onartutako proiektuei dagokienetz, nahiz eta 2002ko azkeneko hiruhilekoak hasia zen haietako batzuen betearazpena eta eskatua zen proiektu horien lehenengo aurrerakina, 2003. urtea arte ez ziren jaso Diruzaintza Nagusian Kohesio Funtsetik zetozen lehenengo zenbatekoak.

07-12-31n amaitutzat jo ziren 2000/2006 aldirako onartutako lau proiektu multzoak eta 2008an proiektu guztien azken saldoen eskaerak bidali ziren; haien zenbatekoa jaso beharreko laguntza osoaren % 20 izan da.

2009an, Kohesio Funtsetik datozen diru-sarrera aitortuak 2.560 milia eurora iritsi ziren, eta 2002.ES.16C.PE.037 proiektuari dagozkio, honako izena duenari: "Uren saneamendua eta arazketa Bizkaian - 2002".

g. ABFT eta AEF

Arrantza Bideratzeko Finantza Tresnan (ABFT) bildu dira Europako Batzordeak arrantza-politikarako aurrekontua gauzatzeko erabili ohi zituen tresna guztiak.

AEF (Arrantzarako Europako Funtza) arrantza bideratzeko tresna berria da EBk 2007-2013 aldirako dituen finantza-aurreikuspenen esparruan, eta Arrantza Bideratzeko Finantza Tresna (ABFT) ordeztzen du.

2009an, 3.051 mila euroko diru-sarrerak izan dira ABFTen kontura, eta 9.132 m€-koak AEFen kontura.

h. Europar Batasunetik datozen beste diru-sarrera batzuk

Aurrekoez gain, 2009an kopuru hauek jaso ziren Europar Batasunetik (mila eurotan daude):

Así, las ayudas europeas recibidas pueden constituir ingresos del presupuesto ordinario del Gobierno Vasco o de los entes u organismos citados.

En lo que respecta a los proyectos aprobados, para el período 2000/2006, si bien en el último trimestre de 2002 ya se había iniciado la ejecución de algunos de ellos y se había solicitado el primer anticipo de los mismos, hasta el año 2003 no se recibieron los primeros importes en la Tesorería General provenientes del Fondo de Cohesión.

Al 31.12.07 se dieron por finalizadas todas las actuaciones incluidas en los cuatro grupos de proyectos aprobados para el periodo 2000/2006 y a largo de 2008 se remitieron las peticiones de los saldos finales de todos los proyectos, cuya cuantía supone el 20% del total de la ayuda a recibir.

Los ingresos reconocidos en 2009 provenientes del Fondo de Cohesión alcanzaron los 2.560 miles de euros correspondientes al proyecto 2002.ES.16C.PE.037, "Saneamiento y Depuración de Aguas en Vizcaya – 2002"

g. IFOP y FEP

En el IFOP, Instrumento de Orientación de la Pesca, se refunden los diferentes mecanismos con los que la Comisión ejecutaba presupuestariamente su política pesquera.

El FEP es el nuevo instrumento de orientación de pesca en el marco de las perspectivas financieras de la UE para el período 2007-2013 que sustituye al Instrumento financiero de orientación de la pesca (IFOP).

En 2009 se han contabilizado ingresos por un importe de 3.051 miles de euros con cargo al IFOP y 9.132 m€ con cargo al FEP.

h. Otros ingresos procedentes de la Unión Europea

Además, en 2009 se ingresaron, también provenientes de la Unión Europea, los importes siguientes (en miles de euros):

Leonardo Da Vinci Europako Programaren Proiektuak Proyectos del Programa Europeo Leonardo Da Vinci	153
7FP Jakintzaren Eskualdeak Proiektua Proyecto Regiones del Conocimiento 7FP	20
Eranet Programa Programa Eranet	19
LIFE+ Programa Programa LIFE+	371
Ikaskuntza Iraunkorreko Europako Programa Programa Europeo Aprendizaje Permanente	2
Arrantza-jardueraren kontroleko urteko programa Programa anual de control de la actividad pesquera	26
Risforcch proiektua Proyecto Risforcch	5
ELOS proiektua Proyecto ELOS	1
"Development of regional strategy of Lubelskie" Europako Proiektua Proyecto Europeo "Development of regional strategy of Lubelskie"	13
GUZTIRA / TOTAL	610

3.a.5. Zorpetzea

Eusko Jaurlaritzaren zorpetzeak, 2002 eta 2009 artean gauzatuak, honelako bilakaera izan zuen, miloi eurotan:

3.a.5. Endeudamiento

El endeudamiento del Gobierno Vasco formalizado entre 2002 y 2009 evolucionó del modo siguiente, en millones de euros:

ZORPETZE FORMALIZATUA / ENDEUDAMIENTO FORMALIZADO								
000.000.€								
Kontzeptuak / Conceptos	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Hasierako egoera (urtar. 1) Situación inicial (1 ene.)	1.405,6	1.552,9	1.805,1	1.964,2	2.033,5	1.850,3	1.243,8	1.266,9
Zorpetze berria Nuevo endeudamiento	366,9	390,0	275,0	300,0	0,0	0,0	200,0	1.411,0
Amortizazioak Amortizaciones(*)	-222,5	-137,7	-115,9	-230,7	-183,2	-606,5	-176,9	-61,2
Ekitaldiko aldakuntza Variación en el ejercicio	144,4	252,3	159,1	69,3	-183,2	-606,5	23,1	1.349,9
Amaierako egoera (aben. 31) Situación final (31 dic.)	1.552,9	1.805,1	1.964,2	2.033,5	1.850,3	1.243,8	1.266,9	2.616,8

(*) 2007ko amortizazioan, jasotzeko aldia amaitzeagatik kitapena ere sartzen da, nahiz eta ez zegoen artean erabat ordainduta, 2004/12/29n formalizatutako 390 milioi euroko mailegutik.

(*) En la amortización de 2007 se incluye la cancelación por finalización del período de disposición, sin haberse hecho efectiva la misma, del préstamo de 390 millones de euros formalizado en 29/12/2004

KOADROA / CUADRO III.10

Zorpetze biziak edo xedatuak, honako bilakaera hau izan du:

El endeudamiento vivo o dispuesto ha tenido la siguiente evolución:

ZORPETZE BIZIA / ENDEUDAMIENTO VIVO

000.000€

Kontzeptuak / Conceptos	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Hasierako egoera (urtar. 1) Situación inicial (1 ene.)	1.130,2	945,9	1.048,2	932,3	701,6	518,4	301,9	491,9
Zorpetze berria Nuevo endeudamiento	0,0	240,0	0,0	0,0	0,0	0,0	366,9	1.650,0
Amortizazioak Amortizaciones(*)	-184,3	-137,7	-115,9	-230,7	-183,2	-216,5	-176,9	-61,2
Ekitaldiko aldakuntza Variación en el ejercicio	-184,3	102,3	-115,9	-230,7	-183,2	-216,5	190,0	1.588,9
Amaierako egoera (aben. 31) Situación final (31 dic.)	945,9	1.048,2	932,3	701,6	518,4	301,9	491,9	2.080,7

KOADROA / CUADRO III.11

2009an, 2009ko ekitaldiko Aurrekontuen Legeak ezarritako muga (presako aurrekontu-neurriei buruzko 1/2009 Legeak aldatua) eta ekitaldiko amortizazioen bolumena kontuan hartuta, bi bono-jaulkipen eta sei mailegu formalizatu ziren Europako Inbertsio Bankuarekin: 1.441 milioi euro guztira, eta hori guztia aurrekontuan jarritako diru-sarreraren kopurua betetzeko, Diruzaintzaren bilakaeraren etengabeko jarraipena egin ondoren eta aurrekontu-likidazioaren betearazpenaren gaineko aurreikuspenen etengabeko jarraipena egin ondoren.

Zorpetze berria formalizatu da, beraz, eta, horrezaz gain, mailegu sindikatuen lehenengo amortizazioa egin da (61,2 milioi eurokoa), eta aurreko urteetan formalizatutako eta 2008/12/31n xedatu gabe zeuden mailegu batzuk xedatu dira (775 milioi, guztira). Horiek guztiak direla eta, zorpetze bizia gehitu egin da (1.588,9 milioi euro); zorpetze formalizatua, berriz, 1.349,9 milioi euro.

Durante el año 2009, considerando el límite establecido por la Ley de Presupuestos del ejercicio 2009, su modificación por la Ley 1/2009 de medidas presupuestarias urgentes y el volumen de amortizaciones del ejercicio, se formalizaron dos emisiones de bonos y seis préstamos por un importe total de 1.411 millones de euros para cumplir la cifra de ingresos presupuestada, tras un seguimiento constante de la evolución de la Tesorería así como de las previsiones de ejecución de la liquidación presupuestaria.

Esta formalización de nuevo endeudamiento junto con la primera amortización de uno de los préstamos sindicados por importe de 61,2 millones de euros, y la disposición de préstamos formalizados en años anteriores y no dispuestos a 31/12/2008 por importe de 775 millones, ha dado lugar a un incremento del endeudamiento vivo de 1.588,9 millones de euros y del formalizado de 1.349,9 millones de euros.

ZOR PUBLIKOAREN SALDO, 2009EKO ABENDUAREN 31N
SALDO DE DEUDA PÚBLICA A 31 DE DICIEMBRE DE 2009

000€

Jaulkipenak EMISIONES	jaulkipena emisión	interes-tasa tipo de interés	kopuru jaulkitakoa importe formalizado	kopuru amort. importe amort.	zorra deuda	amorti.-data fecha amort.
Obligazioen jaulkipen instituzionala Emisión institucional obligaciones	26/11/1999	5,55%	125.000	0	125.000	2014
Epe luzerako mailegua (1) Préstamo largo plazo	30/12/2002	aldakorra variable	366.900	61.150	305.750	2014
Epe luzerako mailegua (1) Préstamo largo plazo	29/12/2004	aldakorra variable	275.000	0	275.000	2016
Epe luzerako mailegua (1) Préstamo largo plazo	28/12/2005	aldakorra variable	300.000	0	300.000	2015
Epe luzerako mailegua (3) Préstamo largo plazo	01/12/2008	aldakorra variable	150.000	0	150.000	2029
Epe luzerako mailegua (3) Préstamo largo plazo	01/12/2008	aldakorra variable	50.000	0	50.000	2029
Epe luzerako mailegua (3) Préstamo largo plazo	20/04/2009	aldakorra variable	50.000	0	50.000	2029
Epe luzerako mailegua Préstamo largo plazo	07/10/2009	4,646%	125.000	0	125.000	2024
Bonoak jaulkipena Emisión bonos	28/10/2009	4,15%	700.000	0	700.000	2019
Epe luzerako mailegua (2) (4) Préstamo largo plazo	24/11/2009	aldakorra variable	175.000	0	175.000	2029
Bonoak jaulkipena (2) Emisión bonos	11/12/2009	4,60%	186.000	0	186.000	2025
Epe luzerako mailegua (2) Préstamo largo plazo	21/12/2009	4,30%	45.000	0	45.000	2022
Epe luzerako mailegua (2) Préstamo largo plazo	21/12/2009	4,60%	30.000	0	30.000	2025
Epe luzerako mailegua (2) Préstamo largo plazo	22/12/2009	aldakorra variable	100.000	0	100.000	2018
GUSTIRAK / TOTALES			2.677.900	61.150	2.616.750	

(1) Urtean-urtean seirena amortiza daiteke / Amortizable anualmente por sextas partes.

(2) 2009/12/31n erabili gabeko kopuruak / Importes no dispuestos a 31.12.2009

(3) Urtean-urtean hogeirenetan amortiza daiteke / Amortizable anualmente por veinteavas partes.

(4) Urtean-urtean hamabosterenetan amortiza daiteke / Amortizable anualmente por quinceavas partes.

KOADROA / CUADRO III.12

2009ko finantza-karga, interesak eta amortizazioak, 78.501 mila eurora iritsi zen. Interesak, 17.351 mila eurora iritsi ziren, eta murriztu egin ziren aurreko ekitaldiaren aldean; amortizazioak, berriz, 61.150 mila eurokoak izan ziren. Finantza-karga LOFCAn ezarritako gehienezkoa baino askoz ere txikiagoa da (gehienez diru-sarrera arrunten % 25ekoa izan daiteke).

Eusko Jaurlaritzak erakunde jaulkitzaile gisa duen kaudimena kalifikatzeko "rating"a eskatu behar izan zen, 1992tik aurrera dibisetan egindako jaulkipenetarako. Autonomia Erkidegoak duen epe luzerako kaudimenari (rating) emandako kalifikazio hobeina mantendu eta finkatzeko asmoz,

La carga financiera en 2009, intereses y amortizaciones, se situó en 78.501 miles de euros. Los intereses alcanzaron los 17.351 miles de euros, reduciéndose respecto al ejercicio anterior, mientras las amortizaciones fueron de 61.150 miles de euros. La carga financiera significó, por tanto, un porcentaje muy alejado del límite máximo del 25% sobre los ingresos corrientes marcado en la LOFCA.

Las emisiones en divisas realizadas desde 1992 obligaron en su día a solicitar un "rating" que calificara la solvencia del Gobierno Vasco como institución emisora. Con el fin de mantener y consolidar la óptima calificación sobre la solvencia (rating) a largo plazo que goza la Comunidad Autónoma, se ha llevado a

urtero bilera bat egin da nazioartean famatuena diren hiru agentziekin, alegia, Standard & Poors, Moody's Investors Service eta Fitch Ratings. Bileran horietan, horiei buruzko informazioa eguneratu da, egun dauden datu berriak oinarri hartuta.

Adierazitakoa kontuan hartuta, hiru agentziek, Standard & Poor's, Moody's Investors Service eta Fitch Ratings-ek, beren kalifikazioak mantendu dituzte: AAA, Aaa eta AAA. Guztiek ikuspegi egonkorra dute, eta kalifikazio horiek ere haiei dagozkien eskaletako altuenak dira. Horrek esan nahi du Euskadik une hauetan munduko hiru rating-agentzia garrantzitsuenen kalifikazio altuenak dituela.

3.b. Gastuak

Eusko Jaurlaritzak aurrekontuetan 2009. urterako aurreikusitako gastuak 11.350.430 mila eurokoak izan ziren, hau da, % 9,4tik gorako gehikuntza, 2008ko aurrekontuko gastuen aldean, 10.373.938 milioi eurora iritsi baitziren.

Gastu likidatuak, berriz, 10.304.507 milioi eurora iritsi ziren, eta igoera % 10,6koa izan zen, aurreko urteko likidazioaren aldean.

Eusko Jaurlaritzak likidatutako gastuaren bolumenak Autonomia Erkidegoaren BPGaren % 16 hartu zuen, 2008. urtean baino 2 puntu eta erdi gehiago.

2008an eta 2009an likidatutako gastuak alderatuz gero, ikusten da langileria-gastuak eta funtzionamendu-gastuak (1. eta 2. kapituluak) handitu egin zirela: % 6,4 eta % 10,2, hurrenez hurren.

Finantza-gastuei (3. kapitulua) dagokienez, gastu horiek % 38,1eko igoera izan zuten; transferentzia arruntak (4. kapitulua), berriz, % 13 handitu ziren. Beste alde batetik, inbertsio errealak % 10,4 gehitu ziren; inbertsioetarako transferentziak, berriz, % 14,5. Finantza-aktiboen aldakuntzak % 121,3 igo ziren; finantza-pasiboak, berriz, % 65,4 jaitsi ziren.

III.13 koadroan eta III.4 grafikoan adierazten da zer-nolako bilakaera izan duten, kapitulua, aurrekontuan sartutako eta

cabo una reunión anual con cada una de las tres agencias internacionales más prestigiosas, Standard & Poor's, Moody's Investors Service y Fitch Ratings, para actualizar su información a tenor de los nuevos datos disponibles.

Considerando lo anterior las tres agencias, Standard & Poor's, Moody's Investors Service y Fitch Ratings han mantenido sus calificaciones como AAA, Aaa y AAA, todas con perspectiva estable, que también son las mas altas de sus respectivas escalas. Esto supone que Euskadi tiene en estos momentos las calificaciones máximas de las tres agencias de rating más importantes del mundo.

3.b. Gastos

Los gastos presupuestados por el Gobierno Vasco para el 2009 ascendieron a 11.350.430 miles de euros, lo que supone un incremento de más de un 9,4% respecto a los gastos presupuestados de 2008, que ascendieron a 10.373.938 miles de euros.

Por su parte, los gastos liquidados alcanzaron los 10.304.507 miles de euros, con un aumento de cerca del 10,6% respecto a la liquidación del año anterior.

El volumen del gasto liquidado por el Gobierno Vasco representó un 16% del PIB de la Comunidad Autónoma, 2 puntos y medio porcentuales más al del año 2008.

La comparación de los gastos liquidados de 2008 y 2009 refleja cómo los gastos de personal y de funcionamiento, capítulos 1 y 2, incrementaron su volumen con aumentos del 6,4% y del 10,2%, respectivamente.

En el caso de los gastos financieros, capítulo 3, experimentó un aumento del 38,1% mientras que las transferencias corrientes, capítulo 4, aumentó en un 13%. Por su parte, las inversiones reales se incrementaron en un 10,4% y un 14,5% las transferencias para inversiones. Las variaciones de activos financieros aumentaron en un 121,3% y, por el contrario, disminuyeron en un 65,4% los pasivos financieros.

En el Cuadro III.13 y el Gráfico III.4 se presenta la evolución por capítulos de los gastos presupuestados y liquidados.

likidatutako gastuek.

EUSKO JAURLARITZAREN GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA, KAPITULUKA
LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE GASTOS DEL GOBIERNO VASCO POR CAPÍTULO

000€


KAPITULUAK / CAPÍTULOS	2005		2006		2007		2008		2009	
	azk. aurr. ppto. def.	obli. garb. oblig. recon.	azk. aurr. ppto. def.	obli. garb. oblig. recon.	azk. aurr. ppto. def.	obli. garb. oblig. recon.	azk. aurr. ppto. def.	obli. garb. oblig. recon.	azk. aurr. ppto. def.	obli. garb. oblig. recon.
Kap. I. Langileri gastuak Cap. I. Remuneraciones del personal	1.480.009	1.468.518	1.575.969	1.553.899	1.697.394	1.688.304	1.831.243	1.815.083	1.962.656	1.930.851
Kap. II. Gastu arruntak Cap. II. Gastos corrientes	2.289.407	2.256.781	2.495.615	2.461.989	2.790.392	2.751.918	3.132.165	3.072.013	3.539.436	3.383.810
Kap. III. Finantza gastuak Cap. III. Gastos financieros	97.679	60.129	47.238	42.363	60.794	29.128	52.604	17.660	60.065	24.389
Kap. IV. Transferentzi arruntak Cap. IV. Transferencias corrientes	2.303.682	2.290.310	2.527.479	2.480.230	2.782.633	2.718.063	2.940.654	2.887.679	3.344.599	3.261.843
Kap. VI. Inbertsio errealak Cap. VI. Inversiones reales	340.540	271.505	356.119	280.434	693.585	316.100	973.415	317.646	882.921	350.733
Kap. VII. Kapital transferentziak Cap. VII. Transferencias de capital	621.698	569.532	681.540	634.024	765.629	679.755	1.003.524	925.426	1.246.091	1.059.523
Kap. VIII. Finantza aktiboak Cap. VIII. Activos financieros	170.765	165.416	162.826	134.817	249.518	185.102	240.132	104.925	253.511	232.209
Kap. IX. Finantza pasiboak Cap. IX. Pasivos financieros	276.581	230.719	183.182	183.182	217.182	216.516	200.202	176.869	61.150	61.150
GUZTIRA / TOTAL	7.580.361	7.312.911	8.029.969	7.770.938	9.257.126	8.584.886	10.373.938	9.317.300	11.350.430	10.304.507

azk. aurr.: azkeneko aurrekontua / ppto. def.: presupuesto definitivo
obli. onar.: obligazio onartuta / oblig. recon.: obligaciones reconocidas

KOADROA / CUADRO III.13

EUSKO JAURLARITZAREN LIKIDATUTAKO GASTUEN BILAKAERA KAPITULUKA
EVOLUCIÓN DE LOS GASTOS LIQUIDADOS DEL GOBIERNO VASCO POR CAPÍTULO

000€



GRAFIKOA / GRÁFICO III.4

Eusko Jaurlaritzaren 2009. urteko gastuetatik, % 83,23 I., II. eta IV. kapituluei dagokie (langileria-gastuak, funtzionamendu-gastuak

De los gastos del Gobierno Vasco en el año 2009 el 83,23% se concentraron en los capítulos I, II y IV, gastos de personal, gastos


eta transferentzia arruntak). Ehuneko hori 2006. urteari dagokionaren antzekoa da, orduan % 83,44koa izan baitzen.

1. kapitulua gastuaren % 18,7 izan zen, eta BPGaren % 3. 2. kapitulua guztizko gastuaren % 32,8 izan zen, eta Autonomia Erkidegoko BPGaren % 5,2; eta 4. kapitulua, berriz, gastuaren % 31,6 eta BPGaren % 5 (III.5 grafikoa).

de funcionamiento y transferencias corrientes. Este porcentaje es similar al correspondiente al del año 2009, que fue de un 83,44%.

El capítulo 1 representó el 18,7% del gasto y el 3% del PIB. El capítulo 2 el 32,8% del total de los gastos y un 5,2% del PIB de la Comunidad Autónoma, mientras que el capítulo 4 se situó en el 31,6% del gasto y en el 5% del PIB (Gráfico III.5).

LIKIDATUTAKO GASTUEK EHUNEKOTAN DUTEN PISUAREN BILAKAERA, KAPITULUKA EVOLUCIÓN DE LA PARTICIPACIÓN PORCENTUAL DE LOS GASTOS LIQUIDADADOS POR CAPÍTULO



GRAFIKOA / GRÁFICO III.5

III.14 koadroan dago jasota Eusko Jaurlaritzaren sailen artean nola banatuta dauden gastuak 2009an. Legegintzaldi-aldaketa dela eta, aldakuntza batzuk izan dira sailen egituretan, eta horregatik ezin da alderaketa homogeneoa egin denboran. Dena den, zenbait ondorio atera daitezke datuen azterketatik.

Azterketa horretan, kontuan izan behar da zenbait sail desagertu egin direla; beste batzuk, ordea, batu egin dira, eta guztiak 2009ko maiatzean karguaz jabetu zen gobernu berriaren jarraibideen arabera egituratu ziren.

La distribución de los gastos por Departamentos en el año 2009 se recoge en el Cuadro III.14. Las variaciones en la estructura departamental, motivadas por el cambio de legislatura, no permiten una comparación homogénea en el tiempo, sin embargo, se pueden establecer algunas conclusiones del análisis.

En dicho análisis, hay que tener en cuenta, tanto la desaparición como la unión de distintos departamentos; estructurados de acuerdo con las directrices del nuevo gobierno que tomó posesión en mayo de 2009.

EUSKO JAURLARITZAREN GASTUEN AURREKONTUA LIKIDAZIOA SAILKA
LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE GASTOS DEL GOBIERNO VASCO POR DEPARTAMENTOS

